**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
**Luz./Ext.** 940
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**GIZA BALIABIDEAK ANTOLAKUNTZA**
pertsonal@pasaia.net



**EUSKARA NORMALIZATZAILE- TEKNIKARIA BITARTEKO IZAERAZ HAUTATZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK**

**BASES QUE REGIRÁN LA CONVOCATORIA PARA LA SELECCIÓN DE TÉCNICO/A DE NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA CON CARÁCTER INTERINO DE PASAIA**

**LANBIDEN IZENA EMATEKO ESTEKA**

**ENLACE PARA INSCRIPCIÓN EN LANBIDE**

**OINARRI BEREZIAK**

Hautaketa-prozesu hau aplikagarria da, batetik, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta kontsultatutako hainbat udalek sortutako bitarteko langileen lan-poltsetatik ezin delako langilerik lortu, eta, bestetik, aldi baterako beharrizan bat betetzeko normalizatzaile-teknikarien lan-poltsa bat sortzeko.

**1.- Deialdiaren helburua:**

LANBIDEren bidezko deialdia, Pasaiako Udaleko Euskarako erdi mailako teknikari plaza bat aldi baterako betetzeko, hutsik dagoelako. Aipatu beharra dago Euskarako normalizazio teknikari lanpostua Pasaiako Udalaren LEPean eskainiko dela, eta aldi baterako estaldura hori plaza behin betiko betetzean amaituko dela.

**2.- Eskaerak aurkezteko modua eta epea**

Deialdi honetan parte hartzeko, interesdunek LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzu Publikora bidali beharko dituzte hautagaitzak, eta zerbitzu horrek egingo du hautagaien aurre-hautaketa.

LANBIDEKO lan eskaintzan izena emateko epea 7 egun baliodunekoa izango da,

**BASES ESPECÍFICAS**

El presente proceso selectivo es de aplicación atendiendo a la imposibilidad de obtener personal de las bolsas de personal interino creadas tanto por el Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa y diversos Ayuntamientos consultados, y atendiendo asimismo a la necesidad de crear una bolsa de personal de Técnico de normalización lingüística para cubrir alguna necesidad temporal.

**1.- Objeto de la convocatoria:**

Convocatoria a través de LANBIDE para la provisión temporal de una plaza de Técnico de normalización lingüística del Ayuntamiento de Pasaia por vacante. Cabe señalar que la plaza de técnico/a de normalización de euskera se ofertará en una OPE del Ayuntamiento de Pasaia y esta cobertura temporal finalizará junto con la ocupación definitiva de la plaza.

**2.- Solicitudes , forma y plazo de presentación**

Para participar en esta convocatoria, las personas interesadas deberán dirigir sus candidaturas al Servicio Público de Empleo Vasco LANBIDE. quien hará la preselección de las personas candidatas.

El plazo para inscribirse en la oferta de empleo de LANBIDE será de 7 días hábiles a contar desde el

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 940
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZA BALIABIDEAK ANTOLAKUNTZA
pertsonal@pasaia.net



deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

día siguiente al de publicación de la convocatoria.

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eta parte hartzeko, ez da beharrezkoa izango udalean eskaerarekin batera inolako agiririk aurkeztea. Nahikoa izango da izangaiek, beren erantzukizunpean, aitortzea aurkezteko epea amaitzen denean prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela.

Para ser admitido/a y tomar parte en el proceso selectivo no será preciso presentar en el ayuntamiento ningún documento con la solicitud, bastando con que los/as aspirantes, bajo su responsabilidad, reconozcan que a la fecha de expiración del plazo de presentación reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos para participar en el proceso.

Lanbideren datu-baseetan jasota ez dauden merezimenduak alegatzeko, hala nola beste administrazio batzuetako hautaketa-prozesuetan parte hartzearena, hautagaiek Lanbiden izena emateko epe berean aurkeztu beharko dituzte egiaztagiriak, Pasaiako Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez. www.pasaia.eus

Para la alegación de méritos que no constan en bases de datos de Lanbide, como puede ser la participación en diferentes procesos selectivos en otras administraciones, los candidatos deberán presentar en el mismo plazo de inscripción en Lanbide la documentación justificativa a través de la sede electrónica del ayuntamiento de Pasaia. www.pasaia.eus

**3.- Parte-hartzaileen zerrenda, jakinarazpenak eta emaitzen argitalpena.**

**3.- Relación de participantes , notificaciones y publicación de resultados .**

Epaimahai kalifikatzailearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak Pasaiako Udalaren web orriaren bidez egingo dira.

Todas las comunicaciones y notificaciones del Tribunal Calificador se realizarán por medio de la página web del Ayuntamiento de Pasaia.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, epaimahaiak aurkeztu diren hautagaitzak aztertuko ditu, eskatutako baldintzen arabera, eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartu eta baztertutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda bat onartuko du, merezimenduen behin-behineko balorazioarekin batera, eta elkarrizketa egiteko deituko zaie puntuazio handiena lortu duten 5 hautagaiei.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, el Tribunal analizará las candidaturas presentadas conforme a los requisitos exigidos, y aprobará una relación provisional de los participantes admitidos y excluidos para participar en el proceso selectivo, junto con la valoración provisional de méritos y se convocará a entrevista a los/las 5 candidatos/as con mayor puntuación.

Interesdunek alegazioak egin ahal izango dituzte, edo, hala badagokio, antzemandako akatsak zuzendu, 3 egun baliodun eko epean, behin-behineko zerrenda hori web-orrian argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Las personas interesadas podrán realizar alegaciones o subsanar, en su caso, los defectos advertidos durante un plazo de 3 días hábiles a partir de la fecha de publicación de dicha relación provisional en la página web.

Epe hori igarota, web-orrian argitaratuko da onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, eta argitalpen horrek

Transcurrido dicho plazo, se publicará en la página web la relación definitiva de participantes admitidos y excluidos, y dicha publicación servirá

interesdunei jakinarazteko balioko du.

**4.- Plazaren ezaugarriak eta lan-poltsaren eraketa**

Izaera: Administrazio Orokorreko Eskala, Teknikarien Azpieskala, erdi mailako teknikarien mota.

Sailkapen taldea: A2
Maila osagarria: 17
Hileroko soldata gordina: 2.683,65€
Hizkuntza eskakizuna: 4. HE
Lanaldia: % 100.
Ohiko ordutegia : 7:19-14:30

Hautaketa-prozesua gainditzen duten **izangaiekin lan-poltsa bat osatuko da.**

**5.- Lanpostuaren eginkizunak**

**Funtzio orokorra**
Pasaian euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizaziorako hizkuntza politikako programak eta planak egin, proposatu eta kudeatu.

**Funtzio espezifikoak**

- Udalaren euskararen erabileraren normalizazio planak gauzatzen laguntzea horretarako behar diren baliabideak eskainiz (aholkularitza, itzulpenak, zuzenketak, terminologia, motibazio-lanketa, trebakuntza...).

- Udaleko lanpostu zerrendako hizkuntza eskakizunen proposamenak egitea eta udal langileen hizkuntza prestakuntza bideratzea eta jarraipena egitea.

como notificación a las personas interesadas.

**4.- Características de la plaza y creación de bolsa de trabajo**

Carácter: Escala de Administración General Subescala Técnica, Clase Técnicos Medios.

Grupo de clasificación: A2
Complemento de Destino: 17
Salario bruto mensual: 2.683,65€
Perfil lingüístico: 4
Régimen de jornada: 100%.
Horario habitual: 7:19-14:30

Las personas aspirantes que hayan superado el proceso selectivo se integrarán en **una bolsa de trabajo.**

**5.- Funciones del puesto de trabajo**

**Función general**
Elaborar, proponer y gestionar programas y planes de política lingüística para la promoción del uso del euskera y la normalización del euskera en Pasaia.

**Tareas específicas:**

- Colaborar en la ejecución de los planes municipales de normalización del uso del euskera, ofreciendo los recursos necesarios para ello (asesoramiento, traducciones, correcciones, terminología, elaboración de motivación, formación...).

- Elaboración de propuestas de perfiles lingüísticos en la RPT municipal y canalización y seguimiento de la formación lingüística del personal municipal.

- Pasaiako gizarte sektore desberdinetan euskararen erabileraren normalizazioa bideratzeko plangintzak egitea.
- Gizarte sektore horietarako zehaztutako helburuak lortzeko ekintzak garatzea.
- Euskararen erabilera sustatzeko komunikazio eta motibazio ekintzak garatzea.
- Gizarte sektore horietako eragile eta ordezkariekin harremanak eta elkarlana gauzatzea normalizazio prozesuak bideratzeko.
- Pasaiako eragile eta entitateei hizkuntza aholkularitza ematea.
- Eusko Jaurlaritzak ematen duen Bikain euskararen kalitate ziurtagiri ofiziala eskuratzeko bideak jorratzea.
- Euskara Sailean eta Euskararen Plan Estrategikoan egokitzen diren bestelako lanetan esku hartzea, beharrezkoa den guztietan.
- Bere kualifikazio profesionalari dagokion beste edozein zeregin egitea, hierarkia mailan gorago dagoenak hala agindu gero.

- Planificar la normalización del uso del euskera en los diferentes sectores sociales de Pasaia.
- Desarrollar acciones para la consecución de los objetivos definidos para estos sectores sociales.
- Desarrollar acciones de comunicación y motivación para fomentar el uso del euskera.
- Contactar y colaborar con los agentes y representantes de estos sectores sociales para canalizar los procesos de normalización.
- Asesoramiento lingüístico a agentes y entidades de Pasaia.
- Abordar la obtención del certificado oficial de calidad en la gestión lingüística Bikain, expedido por el Gobierno Vasco.
- Intervenir, siempre que sea necesario, en los trabajos que correspondan en el Departamento de Euskera y en el Plan Estratégico del Euskera.
- Realizar, asimismo, cualquier otra tarea propia de su cualificación profesional que le sea encomendada por su superior jerárquico.

**4.-Izangaien baldintza orokorrak.**

a) Diplomatura.

b) Lanpostuak derrigorrean ezarrita duen euskarazko 4. Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea, azken hori euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko indarrean dagoen araudiak dioenaren arabera.

c) Diziplina-espediente batez edozein

**4.- Requisitos de las personas aspirantes.**

a) Diplomatura.

b) Acreditar estar en posesión de Perfil Lingüístico 4 de euskera o equivalente, este último de conformidad con la normativa vigente de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

c/No haber sido separado/a, mediante expediente

administrazio publiko edo autonomia-erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ezta, ebazpen judizialaren arabera, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza erabatekoa edo berezia izatea ere, funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko; edo langile lan-kontratudunen kasuan, bereiziak edo desgaituak izan diren lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzeko.

Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

d) Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera,ezintasun edo bateraezintasun lege-kausaren batean sartuta ez egotea.

5.- **Epaimahai ebaluatzailearen osaera:**

Burua:

- Pasaiako Udaleko Antolaketa eta Giza Baliabideen teknikaria, edo hori ordezkatuko duen funtzionarioa, aldi berean idazkari lanak egingo dituena.

Kideak:

— Pasaiako Udaleko euskara teknikaria, edo hori ordezkatuko duen funtzionarioa.

—Pasaiako Udaleko hizkuntza normalizatzaile-teknikaria edo haren ordezko funtzionarioa.

Epaimahaiaren jarduketa-prozedura Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan xedatutakora egokituko da beti.

disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en in habilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial,para el acceso a cuerpo escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o inhabilitado.

En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado/a o en situación equivalente ni haber sido sometido/a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

d/) No estar incurso en ninguna causa legal de incapacidad e incompatibilidad, de acuerdo con lo previsto en la Ley 53/1984, de incompatibilidad del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

**5,- Composición del Tribunal evaluador**

Presidente:

— Técnico/a de Organización y Recursos Humanos del Ayuntamiento de Pasaia o el/la funcionario/a que le sustituya, que realizará las funciones de secretaria.

Vocales:

— Técnico/a de euskera del Ayuntamiento de Pasaia o el/la funcionario/a que le sustituya.

— Técnico/a de normalización lingüística o funcionario/a que le sustituya.

El procedimiento de actuación del Tribunal se ajustará en todo momento a lo dispuesto en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y demás disposiciones vigentes.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 940
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZA BALIABIDEAK ANTOLAKUNTZA
pertsonal@pasaia.net



Enplegu Zerbitzu Publikoek aurrez hautatutako izangaiek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.

Las personas candidatas preseleccionadas por los Servicios Públicos de Empleo podrán recusar a las personas miembros del Tribunal cuando concurran circunstancias previstas en el artículo 24 de la ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Epaimahaiak, Espainiako Konstituzioaren 14. Artikuluarekin bat, bi sexuen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa zorrotz betetzen dela zainduko du.

El Tribunal, de acuerdo con el artículo 14 de la Constitución Española velará por el estricto cumplimiento del principio de igualdad de oportunidades entre ambos sexos.

Epaimahaiari dagokio ariketa egitean sor daitezkeen gorabeherak kontuan hartu, egiaztatu eta baloratzea, eta egoki iritzitako erabaki arrazoituak hartzea.

Corresponderá a Tribunal la consideración, verificación y apreciación de las incidencias que pudieran surgir en el desarrollo del ejercicio, adoptando al respecto las decisiones motivadas que estime pertinentes

**6.- Hautaketa-prozesua**

**6.- Proceso selectivo**

Hautaketa-prozesua bi fasetan garatuko da:

El proceso selectivo se desarrollará en dos fases de la forma siguiente:

**6.1- Merezimenduen balorazioaren eta curriculumaren fasea**

**6.1- Fase de valoración de méritos y curricular**

Fase honen helburua da ondoren egingo den elkarrizketan parte hartu ahal izango duten izangaiak hautatzea, eta erreserba-zerrenda bat osatzea gutxieneko puntuazioa lortu duten gainerako izangaiekin.

Esta fase tiene por objeto seleccionar a los candidatos que podrán participar en la siguiente entrevista, así como formar una lista de reserva con el resto de candidatos que hubieran obtenido la puntuación mínima.

Gehienez ere **5 hautagai** igaroko dira elkarrizketa-fasera.

Se establece un máximo de **5 candidatos** para pasar a la fase de entrevista .

Lanbide-esperientzia baloratzeko, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte lortutakoa hartuko da kontuan.

A efectos de valoración de la experiencia profesional se computará la obtenida hasta la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Lehenengo fase honetan puntuaziorik altuena lortu duten bost izangaiak hautaketa-prozesuaren bigarren eta azken fasera igaroko dira; elkarrizketa pertsonala izango da fase hori, eta gainerako hautagaiak erreserba-zerrenda batean geratuko dira.

Los/las cinco aspirantes que hubieran obtenido la puntuación más alta en esta primera fase pasarán a la segunda y última fase del proceso selectivo que consistirá en una entrevista personal, quedando el resto de aspirantes en una lista de reserva .

**Merezimenduen balorazioa:**

Merezimendu hauek baloratuko dira:

A) - **Lanbide-esperientzia. Gehienez, 40 puntu.**

Gutxienez 6 hilabeteko esperientzia behar da lehiaketan parte hartu ahal izateko.

— Toki-administrazio publikoetan karrerako edo bitarteko funtzionario gisa edo lan-kontratuko langile gisa izandako esperientzia, baremo honen arabera: hilabete oso bakoitzeko puntu 1 emango da, euskara-arloko erdi- edo goi-mailako teknikarien lanpostuetan edo deitutako lanpostuaren funtzioen eduki bereko lanpostuetan izandako esperientzia profesionalagatik.

— Esperientzia profesionala, enpresa pribatuetan zein bestelako erakunde publikoetan, baremo honen arabera: euskara arloko erdi-mailako edo goi-mailako teknikariaren lanpostuetan izandako esperientzia profesionala hilabete oso bakoitzeko 0,75 punturekin baloratuko da, betiere deitutako plazaren eginkizunak zuzenean eta berariaz betetzen badituzte.

Lanaldi murriztuarekin lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

**B- Prestakuntza espezifikoa - gehienez 20 puntu**

Hizkuntzen kudeaketa eta plangintzari, euskararen sustapenari edo soziolinguistika gaiei buruzko formakuntza baloratuko da.

Zehazki, unibertsitateen berezko tituluak (Masterrak, Graduondokoak, etab.), unibertsitateek emandako aditu tituluak, eta

**Valoración de méritos:**

Se valorarán los siguientes méritos:

**A)- Experiencia profesional- Hasta un máximo de 40 puntos.**

Se requiere una experiencia mínima de 6 meses para poder participar en el concurso .

— La experiencia profesional en administraciones públicas locales como personal funcionario de carrera o interino, o como personal laboral, conforme al siguiente baremo: se valorará con 1 punto por mes completo, la experiencia profesional en el desempeño de puestos de trabajo de técnico/a medio/a o superior de euskera o de puestos de contenido igual al de las funciones de la plaza convocada.

— La experiencia profesional en empresas privadas u otras entidades públicas como personal funcionario de carrera o interino, o como personal laboral, conforme al siguiente baremo: se valorará con 0,75 puntos por mes completo, la experiencia profesional en el desempeño de puestos de trabajo de técnico/a medio/a o superior de euskera con funciones no exclusivas en materia de deporte.

Los períodos de tiempo en los que se haya prestado servicio con jornada reducida se computarán como trabajados a jornada completa.

B- **Formación específica,- Hasta un máximo de 20 puntos**

Se valorará la formación en materia de gestión y planificación lingüística, promoción del euskera o sociolingüística.

En concreto, se valorarán los títulos propios de las universidades (Másteres, Postgrados, etc.), los títulos de especialista impartidos por las

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
**Luz./Ext.** 940
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**GIZA BALIABIDEAK ANTOLAKUNTZA**
pertsonal@pasaia.net



administrazio publikoek, unibertsitateek edo elkargo profesionalek antolatutako edo homologatutako formakuntza eta hobekuntza ikastaroak baloratuko dira, honako baremo honen arabera:

universidades, y los cursos de formación y perfeccionamiento organizados u homologados por administraciones públicas, universidades o colegios profesionales, de acuerdo con el siguiente baremo:

- 100 ordutik gorako ikastaroak: 10 puntu titulu edo ikastaro bakoitzeko.

- Cursos de más de 100 horas: 10 puntos por título o curso.

- 40 ordu baino gehiagoko eta 100 ordu bitarteko tituluak edo ikastaroak: 6 puntu ikastaro bakoitzeko.

- Títulos o cursos de más de 40 y hasta 100 horas: 6 puntos por curso.

- 12 eta 40 ordu bitarteko tituluak edo ikastaroak: 2 puntu ikastaro bakoitzeko.

- Títulos o cursos de entre 12 y 40 horas: 2 puntos por curso.

Ez dira baloratuko merezimendu gisa alegatutako goragoko beste bat lortzeko behar diren titulazioak.

No serán valoradas aquellas titulaciones necesarias para obtener otra superior alegada como mérito.

**6.2 Elkarrizketa-fasea (gehienez 40 puntu)**

**6.2 Fase de entrevista (hasta un máximo de 40 puntos)**

Fase honetan, hautaketa-organoak honako hauek baloratu eta zehaztuko ditu, diskrezionalitate teknikoaren arabera:

En esta fase el Órgano de Selección valorará y determinará los siguientes aspectos, según su discrecionalidad técnica:

a/Izangaia bete beharreko lanposturako egokia den: eskatutako ezagutzak, esperientzia eta gainerako baldintzak.

a/ La adecuación de la persona aspirante al puesto a cubrir: conocimientos, experiencia y demás requisitos exigidos

b/Antolaketarako eta harremanetarako gaitasuna eta trebetasuna.

b/ Competencia y habilidad organizativa y relacional.

C/Hautagaiak Pasaia udalerriko euskara-arloko antolakuntzan eta ezagutzan integratzeko duen interesa.
Udaletako Euskara Sailek kudeatzen dituzten programei, baliabideei, egiturei, helburuei, erronkei, mugei, oztopoei eta gainerako gaiei buruzko galderak izango dira, eta hautagaiek gai horiei buruzko ezagutza erakutsi beharko dute.

C/ Interés de la persona candidata para integrarse en la organización y conocimiento del ámbito de euskera del municipio de Pasaia.
Las preguntas versarán sobre los programas, recursos, infraestructuras, estructuras, objetivos, retos, límites, obstáculos y demás temas que los departamentos de euskera de los ayuntamientos gestiona y sobre las cuales los aspirantes deberán demostrar su conocimiento.

**7.- Izendapena**

**7.- Nombramiento**

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 940
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZA BALIABIDEAK ANTOLAKUNTZA
pertsonal@pasaia.net



Alegazioak eta erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahaiak prozesua gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda egingo du, puntuazioaren hurrenkeran.

Alkateak bitarteko funtzionarioa izendatuko du eta hura karguaz jabetuko da, deialdian eskatzen diren gaitasun-baldintzak eta betekizunak justifikatu ondoren.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako izangaiak bere dokumentazioa aurkezten ez badu edo eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da izendatu, eta bere jarduera guztiak ondoriorik gabe geratuko dira, eta izendapenerako izan ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu; hargatik eragotzi gabe faltsutasunagatik izan lezakeen erantzukizuna. Kasu horretan, eta azken puntuazioaren hurrenkeran hurrengoa denaren aldeko izendapen-proposamena egingo da, eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren.

Resueltas las posibles alegaciones y reclamaciones, el Tribunal elevará la relación definitiva de aspirantes aprobados por su orden de puntuación.

La Alcaldía procederá al nombramiento y toma de posesión del/a funcionario/a interino/a previa justificación de las condiciones de capacidad y requisitos exigidos en la convocatoria.

Si dentro del plazo señalado y, salvo causas de fuerza mayor, la persona aspirante propuesta no presentase su documentación o no acreditase reunir los requisitos exigidos, no podrá ser nombrada, quedando sin efecto todas sus actuaciones, con la pérdida de cuantos derechos pudieran asistirle para su nombramiento y sin perjuicio de la responsabilidad en que hubiera podido incurrir por falsedad. En tal caso, se formulará propuesta de nombramiento en favor de quien ocupase el siguiente lugar en el orden de puntuación final, previa acreditación del cumplimiento de las condiciones y de los requisitos exigidos.

## 8.- Gertakariak, inpugnazioak eta legeria osagarria.

Interesdunek deialdi eta oinarri hauen aurka egin ahal izango dute, bai eta deialdiaren ondorioz eta epaimahaiaren lanaren ondorioz egiten diren administrazio-egintza guztien aurka ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta moduan.

Oinarrietan aurreikusi gabekoetan, honako hauek aplikatuko dira:

Estatuko Administrazioaren zerbitzura dauden langileak sartzeko Erregelamendua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Errege Dekretuaren bidez onartua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea,

## 8.- Incidencias , impugnaciones y legislación complementaria

La convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de aquéllos y de la actuación del Tribunal, podrán ser impugnados por los interesados en los plazos y en la forma establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En lo no previsto en las bases, regirá por los siguientes:

Reglamento de ingreso del personal al servicio de la Administración del Estado aprobada por Real Decreto 364/1995, Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, Ley 11/2022 de 1 de diciembre de Empleo Público Vasco, y demás disposiciones que resultaren de

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
**Luz./Ext.** 940
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**GIZA BALIABIDEAK ANTOLAKUNTZA**
pertsonal@pasaia.net



eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak, bereziki Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua.

aplicación, en especial el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.